

SOINU MAPA NET

Zer da soinumapa?

SOINU MAPA elkarlanera eskaintako sare egitasmo irekia da. "Fonografía" edo gure inguruko hotsak grabatzeko artea oinarritzat hartuz, landa-grabaketak erakutsi, kontsultatu eta elkartrukatu nahi ditugu. Webgune honetan Euskal herrian zehar egindako hainbat soinu grabaketa entzun ditzazkezu, toki bakoitzaren errealitateari eta izaerari buruz informazioa ematen dituztenak. Zuk ere grabaketak egiteko ohitura edo gogoia baldin baduzu, zure ekarpena egin dezakezu, mapa hau osatu eta zure grabaketak gainerako bisitariekin elkarbanatzeko.

Beraien elkartruke erabilpena arautzeko, ekarpen guztiak Creative Commons lizentzia-pean daude.

Bertsio honen berritasunak

SOINUMAPA.NET Euskal Herriko Soinu Mapak 2005ean martxan jarri zenez geroztik izan duen hirugarren eguneraketa da oraingoa, orain arteko garrantzitsuenak; webgunearen goitik beherako berrantolaketa eta berrikuntza nabarmenekin.

Itxura eta diseinu berria aurkezteaz gain, erabiltzaileen parte hartzea erraztuko du bertsio berriak, euren grabaketak zuzenean webgunetik zintzilikatzeko aukera emanez; igo duten soinua segundu gutxiren buruan mapan ikusi ahal izango dutelarik.

Soinuak kontsultatu nahi dituenak ere sistema erosoago bat topatuko du. Azken grabaketak zein diren ikusteko aukerak eta RSS jarioaren erabilerak eguneraketak modu errazean jarraitzea ahalbidetuko du, eta kategoria eta tag bidez egin den soinu sailkapenak hauen bilaketan lagunduko du.

Azken finean, berrikuntza guzti hauek **SOINUMAPA**ren funtzionamendua eta parte hartzea erraztu eta uztaizuko dute.

¿Qué es Soinumapa?

SOINU MAPA es un proyecto online público y colaborativo basado en la "fonografía" o el arte de grabar los sonidos de nuestro entorno, que pretende mostrar, escuchar y compartir grabaciones de campo. En esta web puedes consultar una colección de grabaciones realizadas en el País Vasco, que dan, cada una a su manera, pistas de las realidades sonoras de cada lugar. Si tienes la costumbre de realizar grabaciones de este tipo o si te apetece participar, simplemente sube tus grabaciones y compartelas con otros visitantes.

Para regular su uso, todas las aportaciones a la web se presentan bajo licencia **Creative Commons**.

Novedades en esta versión

SOINUMAPA.NET Mapa sonoro del País Vasco presenta la tercera y más importante actualización desde su creación en el año 2005, con una completa reorganización de los contenidos e importantes reformas.

Además de presentar un nuevo diseño, la nueva versión del mapa facilita la participación activa de los usuarios, dándoles la opción de subir sus grabaciones directamente desde la web; de forma que en pocos segundos van a poder ver sus sonidos en el mapa.

También aquel que quiera consultar el archivo del mapa se encontrará con un sistema mucho más fácil. La opción de ver cuáles son los últimos sonidos incluidos y el uso del RSS permiten seguir las actualizaciones, y la clasificación de sonidos por medio de categorías y tags ayuda en la búsqueda de las mismas.

A fin de cuentas, hemos implementado todas estas funciones para mejorar el funcionamiento y la participación en el proyecto.

Miguel A. García "xedh" Euskal Herriko musika esperimentalaren eta soinu-arte eskenako izen aipagarrienetako bat da. Bere proposamen artistikoak aparailu elektronikoetatik eratorritako soinuak eta landa-grabaketak nahasten ditu, soinuaren esperientzia sarkor, intimista eta biziak sortzeko helburuarekin. Bere musikak microsound deritzan estetika jarraitzen du, baina jenero honen arauak gaindituz.

Ikusentzunean eta Arte Ederretan ikasia, hainbat egitasmotan parte hartzen du, halanola: Xedh, Baba Laga edo Válvula Antirretorno eta beste hainbat artista eta taldeekin egin du lan: Robert Todd, Charo Garaigorta, Iñigo Cabo, Jan M. Iversen, Zan Hoffman, Rinus Van Alebeek, Gora Japon, Hamburguesa Vegetal edo Rafael Flores. ERTZ (Nafarroa), Sonic Circuits (Washington DC, USA), LEM (Barcelona) o MEM (Bilbao) bezalako jaialditan eskaini ditu zuzenekoak baita MACUF (A Coruña), Chillida-Leku (Hernani), Sztuki Współczesnej Łaznia (Gdansk, Polonia), Guggenheim (Bilbao) edo El Tanque (Tenerife) bezalako museo eta kultur zentzutarako.

Aldiberean, 2008tik "Larraskito" soinu-artearen eta musika esperimentalen zabalkundearako plataformaren (eta honen barne izen bereko net-label eta kontzertu kluba) ko-zuzendaria da, baita "Zarata Fest" (Bilbo) jaialdiaren zuzendaria ere.

Diskografia (aukeraketa):

[2008] Miguel A. García "Armiarmak" (RMO, CD); Miguel A. García "Subsuelos" (Trans>parent radiation, USA, online); Xedh "Exadh" (Zeromoon, USA, online); [2007] Xedh "Armiarma" (Homophoni, USA, online)

Miguel A. García "xedh" es una de las figuras emergentes dentro de la escena de música experimental y arte sonoro del País Vasco. Su propuesta actual mezcla indiscriminadamente sonidos obtenidos de dispositivos electrónicos y grabaciones de campo, con el objetivo de crear inmersivas, intimistas e intensas experiencias sonoras, siguiendo la estética del llamado microsound pero superando las convenciones de género.

Formado en Bellas Artes y audiovisuales, participa o ha participado en proyectos como Xedh, Baba Laga o Válvula Antirretorno y ha colaborado con varios artistas y bandas como Robert Todd, Charo Garaigorta, Iñigo Cabo, Jan M. Iversen, Zan Hoffman, Rinus Van Alebeek, Gora Japon, Hamburguesa Vegetal o Rafael Flores. Sus actuaciones en directo han sido presentadas en festivales como ERTZ (Navarra), Sonic Circuits (Washington DC, USA), LEM (Barcelona) o MEM (Bilbao), así como en museos y centros culturales como MACUF (A Coruña), Chillida-Leku (Hernani), Sztuki Współczesnej Łaznia (Gdansk, Polonia), Guggenheim (Bilbao) o El Tanque (Tenerife).

Paralelamente desde 2008 co-dirige la plataforma de difusión de arte sonoro y música experimental "Larraskito", que incluye el net-label y el club de mismo nombre, y dirige el festival "Zarata Fest" (Bilbao).

Discografía (selección):

[2008] Miguel A. García "Armiarmak" (RMO, CD); Miguel A. García "Subsuelos" (Trans>parent radiation, USA, online); Xedh "Exadh" (Zeromoon, USA, online); [2007] Xedh "Armiarma" (Homophoni, USA, online)

[www.xedh.org]

SOINU MAPA NET

15 - 05

SOINUMAPA.NET bertsio berriaren aurkezpena
Presentación de la nueva versión de SOINUMAPA.NET

Egitaraua / maiatzaren 15a ostirala:

19:00 SOINUMAPA.NET webgunearen bertsio berriaren aurkezpena Xabier Erkizia eta Xavier Balderas-en eskutik
20:00 Kontzertua: Miguel A. Garcia

Programa / viernes 15 de mayo:

19:00 presentación de la nueva versión de SOINUMAPA.NET de la mano de Xabier Erkizia y Xavier Balderas.
20:00 Concierto: Miguel A. Garcia